



PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Bilbon eta ia mundu osoan, aparkaleku eza eta aparkalekuak aurkitzeko zailtasunak eguneroko bizitzan oso presente daude. Gainera, Bilboko gune desberdinetako gidari talde bati inkesta bat egin ondoren, honako ondorioa atera genuen: Bilbon aparkatzeak 30 minutu behar izaten ditu batez beste. Hala ere, denbora alferrik galtzeaz gain, diru asko ere galtzen da. Hain zuzen ere, kalkulatzen da 3900 milioi euro galtzen ditugula aparkalekuen bila. Benetan kontu kezkarria da eta berehalako konponbidea eskatzen du. Konponbide baten beharra ikusita, gure bizitza aldatuko duen ideia berritzailea garatu dugu, eguneroko bizitza errazagoa izan dadin.

Gure ideia Bilboko aparkaleku bakoitzean sentsoreak instalatzea da, batez ere aparkaleku publikoetan. Sentsore honek, masa dagoen ala ez hautemango du, eta berehala seinale bat bidaliko dio aplikazioari, gidaria zein leku okupatuta dauden jakiteko.

Gure ideiak hiru indargunenagusi ditu. Lehenik, denbora eta dirua aurrezteko aukera. Batez ere, aurrezki ekonomiko horrek gasolina aurreztea eragingo du; izan ere, aparkalekuaren bila batez beste 3.500 milioi euro gastatzen direla. Horrez aparte, honek aurrezki ekonomiko bat ez ezik, ingurumenen efektu positibo bat ere izango du. Hori da gure bigarren indarra. Hau gertatzen da autoek, erregaia erretzean, berotegi efektuko gas ugari sortzen dutelako.

Azkenik, gure proiektuak mota askotako abantailak izango ditu Bilboko gizartean. Baina importanteena zera da: Biztanleen bizitza erraztea.